

Sagrado
Corazón
CORAZONISTAK

konfiantza bidea



konfiantza bidea




LAGUN ASKOREN LAGUNTZAREKIN.



Konfiantzaren pedagogian oinarritzen dugu gure hezkuntza-lana eta haurrak seguru eta zoriontsu sentituko diren esparruak osatzen saiatzen gara. Aurrera egitera bultzatzen dugu haur bakoitza bere lorpenak aintzat hartuta.

Konfiantza-giroan hazten doan haurra bere gaitasun guztiak garatzeko gai izango da, ikasteak berak sortzen dion atseginarengatik ikasiz. Hezkuntza-elkarteko kide guztien arteko egiazko eta bihotzeko harremanetatik sortzen da konfiantza. Bakoitza denagatik eta ez egiten duenagatik garrantzitsua den giroan doa hazten haurra.

Konfiantza hezkuntza corazonistaren esparru naturala da zeinetan haurrak eta gazteak beren etorkizunaren egile izateko seguru sentituko diren.



MAISU ETA IRAKASLE HOBERENEKIN.

Gure ikasgeletan dugun baliabiderik hobereena maisuak eta irakasleak dira. Ez dago ezer irakaslearen esperientzia, pazientzia, maitasuna, haur bakoitza zehatz-mehatz ezagutzea, kutsatzen duen pasioa, edonoren gogoia berpizten duen adorea ordezkatzeko dezakeenik. Ez dago, maisua izan ezik, bihotzetik hezi dezakeen beste baliabiderik. Ondo ezaguna dugu bikaintasunez irakasten duten eskolek eta maisuek askoz gehiago motibatzen dituztela ikasleak ezer gutxi exijitzen dietenak baino. Itxaropen handia dugu beti gure ikasleen etorkizunean.




bidea

konfiantza
bidea



ZURE TALENTUEN BILA.



Pertsonak mundua modu desberdinez ikusteko duen gaitasunean sustraitzen da sormena. Bereziki garatzen dugu, horietan soilik ez bada ere, ikastetxean guztiz zaintzen ditugun literaturan, antzerkian, arte plastikoetan eta abarretan. Ikasteko metodologia aktiboen erabilerak protagonismoa eta etorkizunerako aukera handiak eskaintzen dizkiote ikasleari. Hezkuntza-etapa guztietan eskaintzen ditu ikastetxeak ikasleek bakarka zein taldeka egindako ezagutza eta ikerketa-proiektuak adierazteko edo argitaratzeko baliabideak.



BESTE MUNDU ZORAGARRIAK AURKITUZ.



Ezinbestekoa izango dute garaiko gazteek irakurketa eta idazketa-maila aurreratuak lortzea haien lana garatzeko, gizarteko biztanle izateko eta nork bere bizitza gidatzeko. Irakurketa, ahozko eta idatzizko adierazpena oinarritzko baliabideak dira. Horiek menderatzen joateak ezagutzaren arlo desberdinak erraztasunez eta konfiantzaz bereganatzeko aukera eskaintzen dute. Beste horrenbeste esan daiteke matematikei buruz ere.

Gure ikasleei ikasketetan etekina eta nork bere buruarenganako konfiantza lortzen lagun diezaiekeen ekintza bat proposatzen dugu ikastetxean: ikasleek irakurri beharreko liburuen eta idatzi beharreko dokumentuen kopurua handitzea, hain zuzen ere.

konfiantza
bidea



ZEINETAN ABENTURA ZORAGARRIAK DITUZUN ZAIN.



Berebiziko garrantzia eskaintzen diegu kirolaren eta aisialdiaren sustapenari. Gauza gutxi dago pertsona baten bizitzan txikitatik kirola egin duen lagun-taldearena bezain erabakigarria gerta daitekeenik: taldea, nire taldea.

Elkarren arteko bizikidetza eta aisia partekatzeko bitarteko eta aukera desberdinak jartzen ditugu, hezkuntza eta formazioa gelatik at ere atera daitezen.

Haurrei bere gorputza menderatzeko, adimena antolatzeko eta sormena eta imajinazioa garatzeko aukera eskainiko dien psikomotrizitate-programa zaindua dugu Haur Hezkuntzan.



ETORKIZUNA PRESTATUZ.



Komunikaziorako eta informaziorako teknologia berriak erabiltzen ditugu ikasketa-prozesuaren eta ohitura eta jarrera sortzaileen lorpena hobetzeko etorkizunari begira.

Teknologia erabiltzea funtsezkoa da egungo eskolan. Informatika-gailuek, berez hezteko gaitasunik ez izanagatik, beren gaitasunei etekin handiena ateratzeko aukera eskaintzen diete ikasleei.

Hizkuntzen ikasketa aktiboaren aldeko apustu sendoa egiten dugu, eguneroko lanetan, jokoetan eta ikastetxeko ekintzetan uztartuz.

konfiantza
bidea



IRRIKAZ IKASTEKO.

Gure ikastetxeak duen erronketako bat ikasleak bere ikaste-prozesuaren egile izatea da, irakasleen laguntzaz, informazioaren eta ezagutzaren artean dagoen tarte gairi dezaten.

Jakina da emaitza akademikoak hobetu egiten direla ikaslea eskolan integratua, errespetatua eta maitatua sentitzen denean.

Ikasleari pentsarazi, esperimendu, gogoratu, barre egin, negar egin, sentiarazi egingo dion eta gustatzen zaiona eta izan nahi duena aurkitzeko aukera eskainiko dion hezkuntza-proiektu ongi egituratua osatu dugu.



**Sagrado
Corazón**
CORAZONISTAK